

# XEDAPEN OROKORRAK

## KONSTITUZIO AUZITEGIA

### 4256

*EDIKTUA, 4417-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsuari buruzkoa. Senatuko Talde Parlamentario Popularreko 50 senatarik baino gehiagok Euskal Autonomia Erkidegoaren apirilaren 4ko 5/2019 Legearen lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren artikuluen eta xedapen gehigarri bakarraren kontra sustatua; lege horren bidez aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legea.*

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak, 2019ko irailaren 5eko Probidentziaren bidez, 4417-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa izapidetzeko onartu du. Errekurtsoa Senatuko Talde Parlamentario Popularreko 50 senatarik baino gehiagok sustatu dute Euskal Autonomia Erkidegoaren apirilaren 4ko 5/2019 Legearen lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren artikuluen eta xedapen gehigarri bakarraren kontra (lege horren bidez aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legea).

Madril, 2019ko irailaren 5a.

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkuraren Justizia-idazkaria,  
HERMINIA PALENCIA GUERRA.